

Syntrichia caninervis goroldioa hautagai egokia da Marten bizitzeko

Txinako Zientzia Akademiako ikertzaileek frogatu dutenez, *Syntrichia caninervis* goroldioa gai da Marteko kondizioetan bizitzeko, eta, beraz, planeta hori kolonizatzekeo aproposa dela adierazi dute.



Syntrichia caninervis goroldioa basamortuetan hazi ohi da. ARG.: Sheri Hagwood/USDA-NRCS/Jabego publikoa.

Syntrichia caninervis goroldio-espezie arrunta da, eta basamortuetako muturreko kondizioetan hazten da, hala nola Tibetean, Antartikan eta eremu polarretan. Hori dela eta erabaki zuten Marteko kondizioetan hazten ote zen probatzea. Izan ere, aurreko ikerketa gutxi batzuek frogatu dute zenbait mikroorganismo, alga, liken eta landareen esporak badutela gaitasuna Marteko muturreko baldintzetan irauteko, baina ez landare osoak.

Hala, Txinako Zientzia Akademiaren Atmosfera Planetarioen Simulazio Zentroan egin zituzten esperimentuak, eta [The Innovation aldizkarian jakinarazi dituzte emaitzak](#). Besteak beste, baieztatu dute espezie horrek izozte-temperatura oso baxuetan biziraun dezakeela (-196 °C), baita gamma-erradiazio maila altuetan ere. Halaber, badirudi aurretiko deshidratazioak landareei bizirautean laguntzen diela. ●

Edizio genetikoko teknika berri bat, CRISPR baino zehatzagoa

RNA-zubiak izeneko teknika batek aukera ematen du DNA-sekuentzia luzeak txertatzeko, alderantzizatzeko edo ezabatzekeo, bakterioen genomaren kokapen espezifikoetan. Gaur egungo metodoak baino eraginkorragoa eta zehatzagoa da, baina oraindik ez dute frogatu giza zeluletan baliagarria denik.

AEBko eta Japoniako ikertzaile-talde batek garatu du teknika, bakterioen eta arkeoen RNA-zubietan inspiratuta. Funtsean, RNA-gidari bat erabiltzen da, genoman aldatu nahi den kokapen zehatza eta emaillearena identifikatzeko eta haietara elkartzekeo gai dena.



RNA-zubiaren metodoaren irudikapena. ARG.: VisualScience/CC 4.0.

Ugaztunetan erabilgarria balitz, aukera asko eman-go lituzke, CRISPR baino sinpleagoa eta zehatzagoa baita. Hala ere, ohartarazi dute CRISPR metodoa oso garatuta dagoela, eta, beraz, lan handia egin beharko dela RNA-zubien teknika haren mailara heltzeko eta hura gainditzen duela frogatzeko. ●